

Berrigara

BERGARA / Egubakoitza / 2005eko apirilaren 29a

624. zenbakia

JAIK/ Udalak herriko hainbat kolektiboren laguntza izan du antolaketan; berritasun ugari eta 130.000 euroko aurrekontua aurten

Jendearen parte-hartzea bultzatzea da Pazkoetako antolatzaileen helburu nagusia

EDU MENDIBIL

Aurtengo Pazkoetako programa aurkeztu zuten martitzenean Udaleko eta Bergarako hainbat kolektibotako ordezkariak. Azken urteotan jaiak izan duten beherakada ikusita, jendearen parte-hartzea bultzatzea eta giroa suspertzea da antolatzaileen asmoa.

Pazkoetako programa zehazteko orduan, Udaleko Jai Batzordearekin batera herriko hainbat kolektibo izan dira lanean azken hilabeteotan. Martitzenean programaren berri eman zuten prentsa aurrean, kultura-etxean.

Esan bezala, giroa suspertze aldera, hainbat berritasun ekarri dituztela adierazi zuten antolatzaileek. Antolaketan parte hartu duten herriko kolektiboen izenean Mireia Larrañagak zera azpimarratu zuen: "Publiko guztietara heltzeko, adin ezberdineko jendea erakartzeko ekitaldiak ekartzen saiatu gara. Joan zen urtean giroak behera egin zuen nabarmen eta argi dago jaiak berreskuratzea herritarron esku dagoela".

NOBEDADE DEZENTE

Besteak beste, hauek izango dira nobedadeetako batzuk: Pixpila Disko Busak drag-queenak, gogoak edota DJak ekarriko ditu San Martin plazara egubakoitzean; zapatuan, dantza latindarren lehiaketa jokatu da; aurretik, McKensy's Eskoziako taldea izan-



Luis Abajo, Mireia Larrañaga eta Iñigo Almortza, jaien antolaketan parte hartu duten hainbat kolektiboren ordezkariekin, martitzeneko aurkezpenean.

go da giroa alaitzen herriko kaleetan; martitzenean sagardoa dastatzeko aukera izango da jaiak agurra eman aurretik...

Bestalde, musikak eta kirol ekitaldiek berebiziko protagonismoa izango dute maiatzaren 13tik 17ra bitartean.

Bideberrin hainbat estilotako musika emanaldiak izango dira

Koadrilen Egunean, maiatzaren 16an, bazkari herrikoia izango da San Martin plazan

eta iaz harrera bikaina jaso zuen Mariachi Garibaldi taldea Pazkoetako astelehenean bisitari izango dugu.

KOADRILEN EGUNA ASTELEHENEAN

Astelehenean, maiatzaren 16an, Koadrilen Eguna ospatuko da. Iñigo Almortzak aurreratu zuenez, ekitaldi ugari izango da egun

horretan, tartean herri bazkaria San Martin plazan (paella erraldoia gertatuko dute), jokoak, Mister eta Miss Jator Lehiaketak, eta beste hainbat kontu.

Luis Abajo kultura-zinegotziak emandako datuen arabera, aurtengo jaien aurrekontua 130.000 eurokoa da. Helburua, jaiak berrindartzea.

Apirilaren 25etik maiatzaren 6ra

**Batxilergoetan
aurrematrikulazio
epea zabalik:**

- Natur eta osasun zientziak
- Giza eta gizarte zientziak
- Teknologikoa
- Arte Batxilergoa

Arasate

INSTITUTUA

Santa Teresa 25
Tel.: 943 794447 - 943 798300

ONDAREA/Berritze lanak udazkenean hasiko dira: Tavexeko bulegoak kokatuko dira han

Gabiria Dorrea berrituko dute Tavexek eta Udalak

E.M.

Bergarako Udalak eta Tavexek Gabiria Dorrea berritzeko hitzarmena sinatu zuten egubakoitzean. Hitzarmenaren arabera, Tavexek berritze lanen %50 ordainduko du. Trukean, San Antonion dituen langileen bulegoak bertan kokatuko dira etorkizunean.

Gabiria Dorrea berritzeko lanak udazken aldera hasiko direla aurreratu zuen alkateak, prentsa aurrean. Tavex taldeko Enrique Garranek eta Victoriano Gallastegi alkateak sinatu zuten akordioa.

Gabiria Dorrea XV. mendekoa da eta monumentu kalifikatu izendapena dauka, Jauriaritzako Kultur Sailak ematen duen goren. Dorrea nahiko egoera txarrean dago eta goitik behera berrituko dute. Monumentu kalifikatu izendapena izatean, berritze lanak egiteko administrazioaren laguntza jasotzea espero du Udalak. Esan bezala, Tavexeko bulegoak kokatuko dira han. Tavex taldeko 30 langilek dihardute gaur San Antonion lanean.



Aste honetan hasi dira Algodonerako pabiloi zaharrak botatzen.

PABILIOIAK, BERTAN BEHERA

Bestalde, astelehenean bertan Algodonera San Antonioko pabilioiak bertan behera botatzeko lanak hasi ziren. Lante-

gia zegoen tokian etxebizitzak egingo dituzte etorkizunean. Tavex taldeak Adarra erakuntza-entresari saldu zion lursaila, 17.000 m2 guztira.

LABUR

1968. urtean jaiotako bergararrek maiatzaren 28an egingo dute afaria

1968. urtean jaiotako bergararren afaria izango da maiatzaren 28an. Egun horretan Sagarpin elkartuko dira, 19:30ean. Izena emateko epea maiatzaren 13ra arte izango da zabalik. Interesatuak 10 euro ordaindu behar dituzte Euskadiko Kutxan irekitako kontuan.

Eli Moreno sexologoak hitzaldia egingo du martitzenean, Mariaren Lagundia Ikastolan

Mariaren Lagundiak antolatutako hitzaldi sortaren barruan, Eli Moreno sexologoak *Heziketa afektibo-sexuala* izenburuko hitzaldia egingo du martitzenean, maiatzaren 3an, Mariaren Lagundian, 18:00etan. Lahir sexologia taldeko kidea da Moreno.

Helduen Eskolan, Aranzadin eta Ipintza institutuan aurre-matrikula egiteko aukera

Helduen Eskolan aurre-matrikula egiteko epea maiatzaren 6ra arte dago zabalik, aste barruan 16:00etatik 19:00etara. Argibideak Irizar jauregiko lehen pisuan edo 943 76 44 52 telefono zenbakian.

Bestalde, Aranzadi Ikastolan (943 76 90 71) eta Ipintza Institutuan (943 76 31 42) batxilergorako aurre-matrikulazioa egin daiteke, maiatzaren 6ra arte.

Etorkinen egoera erregularizatzeko epea maiatzaren 7ra arte dago zabalik

Alkateak bandoan aditzera eman duenez, herrian bizi diren eta komunitarioak ez diren atzerritarren egoera erregularizatzeko epea maiatzaren 7ra arte egongo da zabalik.

Hori dela eta, erroldatze-agiria lortzeko interesa dutenek, Udaleko Idazkaritzara jo beharko dute: aste barruan 07:30etik 13:30era eta zapatuan 09:00etatik 13:00etara izango da erroldatze agiria lortzeko aukera.



Etxerako ederrena, Zanguitun

deco-tex ZANGUITU alfonbrak

Herri lagunak 4 BERGARA • Tel.: 943 76 08 69

- Alfonbrak
- Alfonbrak neurritira
- Funda nordikoak
- Edredoia
- Kortinak
- Toailak
- Izarak

ZANGUITU margoak

Irala z/g BERGARA • Tel.: 943 76 19 54

IRU margoak

Araba etorbidea 3 ARRASATE • Tel.: 943 79 11 71

- Parket flotatzailea*
- Sintasola*
- Moketak*
- Paper pintatuak

* Salmenta eta etxean ipintzea.



Urtean bi aldiz izaten da meza San Migelen, Asentzio egunean eta San Migel egunean. Ermitaren lehen aipamena 1050. urtekoa da.

JAIK/ Labegaraietako Txirrindulari Sariaren 42. ekitaldia jokatu da domekan

Elorregin eta Labegaraietan jai ekitaldiak asteburuan

E.M.

Elorregi auzoan jaien azken txanpa izango dute aste bukaeran. Bihar, zapatua, auzo bazkaria izango da Alkartasuna elkartearen. Peñagarikano eta Amuriza bertsolariak eta trikitilariak alaituko dute bazkalostea. Gauean, soinu-joleekin erromeria izango da, 22:00etan. Domekan, maiatzaren lehen, Alai Taldeak lagundutako

Meza Nagusia egongo da, 10:30ean. Jarraian Moises Azpiazu dantza taldearen saioa, pilota partiduak eta salda eta txorizoa.

LABEGARAIETAKO JAIK

Labegaraietan maiatzaren lehenegoa ospatuko dute domekan. Marrazki lehiaketa izango da 10:30ean, Meza Nagusia San Joxepeko abesbatzarekin 11:00etan eta arratsaldean, txirrindulari

lasterketa 16:30ean, *kukañak*, buruhandiak eta txokolotada 17:00ak aldera eta gauean auzo afaria Zabala jatetxean.

ASENTZIO EGUNA EGUENEAN

Bestalde, Asentzio Eguna ospatuko dute Aritzetaiko San Migel ermitan egunean, maiatzaren 5ean. Meza Nagusia 11:00etan egingo da eta jarraian hamaiketako egiteko aukera egongo da.

LABUR

Alvaro Aragonen hitzaldia martitzenean, 'Bergara, historia topagunia' zikloaren barne

Bergara, historia topagunia hitzaldi sortarekin jarraituz, Alvaro Aragon oiartzuarrak Gipuzkoako mendiak aro berrian (XVI-XVIII. mendeetan): basogintza eta abeltzaintza hitzaldia egingo du martitzenean, Miguel Altunako aretoan, 19:30ean. Euskal Herriko Unibertsitatean Historiako Doktorea da Aragon.

EHNA tramitatzeko aukera izango da bihar, zapatua, Barrenkaleko Irizar jauregian

Bai Euskal Herriari taldeak deituta, EHNA tramitatzeko aukera izango da zapatuan, apirilaren 30ean, Irizar jauregiko sarreran, 11:30etik 13:30era.

Interesatuak erroldatze-agiria eta hiru argazki eraman eta 15 euro ordaindu beharko dituzte. Hileroko azken zapatuan EHNA tramitatu dute Irizarren.



Rufinari agur-bazkaria egin zioten

Udaleko lankideek agur-bazkaria egin zioten Rufina Olasagastiri aurreko egubakoitzean, Azpeitxi jatetxean. Hainbat urtean kultur eta hezkuntza teknikari jardun ondoren, erretiratzeko ordua heldu zaio Rufinari. Umore eta giro onean, lankideen partetik hainbat opari jaso zituen Rufinak. Zorionak!

etxalar
kafetegia
kruasantegia
Boni Laskurain 4
BERGARA
943 76 50 68

ARANE
KRISTALDEGIA
Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel.: 943 76 74 09
670 483 903

ARRI
Industri hornidura
Latigilloak
Telleria 2, BERGARA
Tel.: 943 76 19 04
Faxa: 943 76 43 03
Sakelakoa: 656 78 64 84

Sugoi
ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...
Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak
Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53

ZABALA
JATETXEA • OSTATUA
Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57
1929az geroztik zure zerbitzura

Jose M. Martin
pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialak
Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

Silvestre Muñoz, s.l.
pinturak
Pintura-lanak
orokorrean
Pintura industrialak
Zoru arinak:
sintasolak, moketak...
610 25 99 82
610 25 40 37
943 76 24 11
Amillaga 1, 10 pabilioia.
20570 BERGARA



BERRIGARA

Bergararen egoera larria ikusita, Aloñaren aurkako derbiak interes berezia izango du. Argazkian, Zubikarai erdilaria.

FUTBOLA/ Oiartzun jaitsita, sei talderen artean erabakiko dira beste hiru jaitsiera postuak

Bergara-Aloña Mendi derbia zapatuan Agorrosinen

EDU MENDIBIL

Begarak Aloña Mendi hartuko du zapatuan Agorrosinen, 16:30ean. Azken bi partiduetan puntu bakarra lortu du Bergarak eta mailari eutsi ahal izateko behar beharrezkoa du bihar irabaztea. Liga amaitzeko bost partidu faltan, mahoneroak sailkapeneko azkenareko tokian dira.

Begarak Tolosa liderraren etxean galdu zuen zapatuan, 3-0. Beraz, mailari eusteko sufritu egin beharko dute mahoneroek. Bihar izango dute lehenbiziko finala: Aloña Mendi 12. postuan dago sailkapenean, 41 punturakin. Badirudi hortik beherako taldeak izango direla Bergararen arerio zuzenak jaitsiera saihesteko borrokan: Touring (40 puntu), Beti Gazte eta Anaitasu-

na (38), Aretxabaleta (37) eta Urola eta Orioko (35). Azken tokian dagoen Oiartzun (19 puntu) mailaz jaitsiko da. Aloñaren bisita jaso ondoren, hurrengo jardunaldian Zestoan jokatuko du Bergaran; ondoren Zarautz hartuko du etxean, Pazkoetan; etxetik kanpoko azken partidua Touringen aurka jokatuko du eta liga Aretxabaletaren aurka agurtuko dute, Agorrosinen.

LABUR

Bergara Hiria Txapelketako kanporaketak astelehenean eta martitzenean frontoian

Lasak eta Igor Gutierrez bergararrak Errauzkin anaien aurka jokatuko dute maiatzaren 2an Udal Pilotalekuan. Aurretik 22 urtetik azpiko mailan, Uriarte-Zabala eta Beobide-Uzkudun bikoteak izango dira, 19:30ean. Hilaren 3an, finalerdietako kanporaketak izango dira.

Lorea Larrañaga izan da irabazlea gaztetxoan mailako badminton txapelketan

Begarako Badminton Elkarteak antolatutako gaztetxoan mailako txapelketan, Lorea Larrañaga izan da irabazlea. 1992an jaitako zazpi neskek hartu dute parte txapelketan. Bigarren Nerea Agirre sailkatu da eta hirugarren, berriz, Irene Larrañaga.

Bost futbol partidu ipintzan eta eskubaloiko bat aste bukaeran, Labegaraietan

Zapatuan hiru partidu jokatuko dira Ipintzan: Bergara-Reala (neskak, 10:00etan); Bergara-Antiguoko (ohorezko kadete maila, 12:00etan) eta Bergara-Urola (lehen gazte maila, 18:30ean). Domekan, Bergara-Antzuola (infantil maila, 11:00etan) eta Bergara-Zarautz (neskak-8, 16:30ean) jokatuko dira.

Eskubaloian, kadete mailako mutilen taldeak Elgoibar hartuko du zapatuan kiroldegian, 16:30ean.

Ariznoako gimnasta gaztetxoak ondo zapatuan, Gipuzkoako Txapelketarako proban

Alebin mailan, Cristina Etxeberria 2. sailkatu zen zapatuan, kiroldegian, eta Ainara Gonzalez laugarrena izan zen. Bestalde, alebin mailako San Martin ikastetxeko taldean jardun zuten Cristina Etxeberria, Ainara Gonzalez, Olatz Ugalde, Maider Cabo, Irene Aguayo, Judith Dobao eta Uxue Lazkanok lehen postua eskuratu zuten.

LABEGARAIETAKO FUTBITO TXAPELKETA

ZAPATUAN, BARRUAN (PLAY-OFFAK)
18:00: Pagomendi-Errotagain A Ze Flaxa
19:00: A Ze Flaxa-Niu Tim. Errotagain
20:00: Pirulotarrak-Cosa Nostra. Niu Tim

DOMEKAN, BARRUAN (KOPA)
17:00: Irubide-Fac PDS
18:00: All Blacks-PDS. Fac
19:00: Kalaveras-Agirrebeña. Ganbara
20:00: SDTNT-Ganbara. Kalaver

Eguneko menuak!

Astelehenetik ostiralera eguneko menuak Zuhaitzin.

Ordutegia: 12:30etik 15:00etara.

Espaloia 6 Bergara Tel.: 943 76 59 22



EL CARMEN
GARBIKETA
ZERBITZUAK

Lanegien garbiketa eta mantenimendua
Banketxe, Ikastetxe eta Bulego Kontserbazioak
Moketa garbiketak
Garajeen garbiketa eta mantenimendua

Zubieta 28 - Tel.: 943 76 56 15 Faxa: 943 76 73 39
20570 BERGARA - Sakelakoa: 609 16 33 23

**GARRAIOAK
ANDUZU
TRANSPORTES**

BERGARA
607 349 043



Grua zerbitzua

Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

REMENTERIA
Altzariak

Egongelak
Logelak
Aukera guztiak
Enkarguan

Artekalea, 6
BERGARA
943 76 13 29

ZINEMA/ Herriko zine zale talde batek maiatzaren 5era arte jasoko ditu sinadurak


Bergaran zine emanaldiak eskatzen sinadura bilketa

EDU MENDIBIL

Herriko talde batek sinadura bilketari ekin dio, Udalari zine emanaldiak antolatzeko eskatuz. Novedades aretoa itxi zuten Aste Santu ostean eta zinemaren ohiko erabiltzaileek "gabezi hau ekiditeko beharrezko gestioei ekiteko" eskatzen diote alkateari.

Bergarako zinemaren ohiko erabiltzaileek sinatzen dute herriko hainbat tokitan zabalduko gutuna. Maiatzaren 5era arte batuko dituzte sinadurak. Dagoeneko Bergarako alkateari zuzendutako gutuna aurkeztu dute udal-txean. "Gure uste apalean aurreikuspen eza nabarmena izan da, urteak dira arazo hau mahai gainean dagoela eta konponbiderik ez zaio aurkitu" diote.

Novedades itxi ondoren, Debagoienean bi zine areto daude orain: Amaia antzokia Arrasaten, eta Oñatikoa. Bertako udalek kudeatzen dituzte zine emanaldiak. Bergarako Udalari antzeko zerbait egiteko eskatzen diote herriko zine zaleek: "Ez dakigu Udalak kultur ekitaldiak gauzatzeko areto baten eraikuntza proiektatuta daukan ala ez, edo erabilera anitzeko aretoaren baten egokitzapena gauzatzeko asmorik ote duen, non zineak bere tokia izango lukeen. Oraingo gabezia ekiditeko ahalik eta azkarren beharrezko gestioei ekiteko eskatzen diogu Udalari".



Aste Santuaren ostetik itxita dago Bergaran zegoen zine areto bakarra.

Novedadesen ez bada, Zabalotegin zinea programatzeko aukera aztertzen dihardu Udalak

UDALA: LEHENTASUNEZKO GAIA

Luis Abajo kultura zinegotziak zera esan digu: "Zine emanaldiak programatzeko lanean ari gara, gaur egun lehentasunezko gaia delako. Dagoeneko Novedades aretoko jabeekin hartu emanak izan ditugu eta han ez bada, Zabalotegira zinea eramateko aukera aztertzen ari gara".

LABUR

Unai Azkarateren komiki lana saritu dute XVIII. Arrasate Lehiaketak-en

Arrasate Euskaldun Dezagun Elkarteak antolatutako Arrasate Lehiaketak-en Unai Azkarate bergararraren Irtenbiderik gabeko autobidea izenburuko lana saritu dute. 1988. urtearen aurretik jaiotakoen artean, bigarren saria lortu du Azkaratek. 90 euroko saria jaso du. Sari banaketa ekitaldia aurreko egunean egin zuten, Arrasateko Monterron jauregian.

Pazkoetako sukaldaritza zein dantza latindarren lehiaketetarako izenematea

Pazkoetako zapatuan, maiatzaren 14an, dantza latindarren lehiaketa jokatu da Bergaran: *salsa, merengea, txa-txa-txa* eta *batxata* dantzatu beharko dira. Bikote irabazleak 600 euroko saria jasoko du. Izenematea maiatzaren 6ra arte dago zabalik.

Bestalde, jaietako sukaldaritza lehiaketan parte hartzeko izenematea martitzenera arte (maiatzak 3) egin daiteke. Argibideak 943 76 91 58 telefono zenbakian.

Jardunek logotipo lehiaketa deitu du elkarrearen 15. urteurrena ospatzeko

Elkarrearen 15. urtemugan, logotipo lehiaketa deitu du Jardunek. Bergarako edonork har dezake parte eta bi maila bereiziko dira: 12 urtetik beherakoak eta 12 urtetik gorakoak. Gaztetxoek arteko irabazleak jolasak jasoko ditu eta 12 urtetik gorakoek lehiaketa irabazten duenak, 60 euro. 15. urteurrena eta Jardun hitzak agertzea ezinbestekoa da. Lanak jasotzeko epea maiatzaren 3an amaituko da. Argibideak Jardun elkartean, Errotalde jauregian, 943 76 08 19 telefono zenbakian.

Kontzertuak gaur eta bihar eta programazio berezia Txapa Irratian hurrengo astean

Gaur, egubakoitza, Azkaiter Peloxek eta Alex Muelak emanaldia egin dute Ziripoten, 22:30ean. Zapatuan, Berrizko Sei urte eta Nabari taldeek joko dute gaztetxean, 22:30ean.

Bestalde, Txapa Irratiak programazio berezia iragarri du maiatzaren 3tik 8ra. Goizetan, 12:00etan, herriko hainbat kolektibori egindako elkarrizketak emitituko dituzte. Besteak beste, Jardun, AEK, Ilatargi, Euskal Herriak bere eskola edota Komiteetako ordezkariak elkarrizketatu dituzte. Gauetan, etorkinekin egindako irratsaio bereziak izango dira FMko 97.25ean, gauerdian.

SANTOS



Etxetresna elektrikoak
eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

**OILAGORRA
TABERNA**

Barrenkalea 21 BERGARA

MUJIKA FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA

**BEHEKO
TABERNA**

Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

**KONDE
PANADEROKUA**



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA



943 76 20 61
BERGARA



Urteaga 9
BERGARA
Tf. 943 76 18 45

**BERGARA
MARMOLERIA**
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

FRONTOI



TABERNA

Fraiskozuri z/g.
BERGARA
943 76 05 09

ZAHARRAKBERRI

Julian Etxeberria, Luis Larrañaga eta Juan Curado dira San Joxepe Elkartearen zuzendaritza taldeko kide berriak

IRATI AGIRREAZALDEGI

Martitzenean egin zuen San Joxepe Erretiratuen Elkarteak urteko batzar orokorra. Bertan, besteak beste, zuzendaritzako hainbat kidek taldea laga zuten eta hiru lagun berri sartu dira.

Zuzendaritza talde berria osatu dute San Joxepe Erretiratuen elkartearen, eta aurki hasiko dira guztiak lanean.

Hiru kidek utzi dute zuzendaritza taldea. Nieves Gallastegik bost urte inguru eman ditu bertan; Juan Cruz Azkaratek bi edo hiru eta Luis Mari Ugartek izena eman bazuen ere, ez du parte hartu zuzendaritzako bileretan.

Hauek lagatako lekua Julian Etxeberriak, Luis Larrañagak eta Juan Curadok hartu dute.

Eurekin batera beste zazpi lagunek osatuko dute zuzendaritza taldea, guztira hamar erretiratu: Juan Iturralde, presidentea; Alejandro Arroyo, presidente orde; Maria Asun Plazaola, idazkaria; eta Antolin Marchena, diruzaina. Hautaz gain, Irene Gabilondo, Jesus Ruiz de Azua eta Rosa Larrañaga ere izango dira zuzendaritzako kide.

URTERO ALDAKETA

Juan Iturralde presidentea jakinarazi digunez, hemendik aurrera urtero zuzendaritzan aldaketak egitea da euren asmoa.

Hemendik aurrera urtero bost kidek zuzendaritza lagako dute eta bost lagun berri sartuko dira

Beti berdinek lanean ez jardutea da zuzendaritza berritzeko arrazoietako bat

“Zuzendaritzako bost kidek euren lekua utzi eta bost berri sartuko dira taldean. Horretarako, urtean zehar bazkideak animatuko ditugu gertu daudenek lekua har dezaten. Izan ere, zuzendaritza berritu egin behar da, beti berdinek lanean jardutea ez da zuzena. Gaur egun 1.685 bazkide gara eta denon artean osatu dezakegu talde egoki bat elkarte kudeatzeko”, esan digu.

San Joxepe Elkarteak ekintza asko antolatzen ditu urtean zehar. “Bisitak egiten dizkiegu erretiratuari; Mizpirualde Egoitzara ere joaten gara; informatika ikastaroak egiten ditugu; eskulanak egiteko aukera ere badago; eta



Hamar lagun hauek osatuko dute datoñren urtera bitartean San Joxepeko zuzendaritza taldea.

hitzaldiak zein kultura-ekitaldiak ere izaten ditugu. Baina martxa horri eutsi eta gauza berriak antolatu nahi baditugu beti ezin dugu pertsona berdinek lanean segi; beraz, hori da zuzendaritza berritzeko arrazoietako bat, elkarteak martxa onean jarraitzea”, esan digu Iturralde.

AGINTARIEN ANIMOAK

Victoriano Gallastegi alkatea ere izan zen batzarrean eta orain arteko zuzendaritzakoei eskerrak eman zizkien, baita ondorengoei lanean jarraitzeko animoak eman ere. “Herriarentzat garrantzitsua da zuen lana eta Udala beti izango duzue laguntzeko prest”.

Bestalde, Foru Aldundiko ordezkari Javier Postigoren esanetan, “San Joxepe Elkartearen erdugarri izan da eta izango da Gipuzkoako gainontzeko erretiratuen elkarteentzat. Beste inon ez dago horrelako talderik eta orain artean bezala lanean segi dezazuen nahi dugu”.

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

Dixula
BOKATAK
DAUZKAGU

Barrenkalea 32
BERGARA
Tel.: 943 76 44 95

JOXAN
ARRAINDEGIA

Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

Ganbara
TABERNA

Heure erara
ibiltzeko!

Irala z/g.
BERGARA
Tel.: 943 76 55 75

EDEL
TAPIZ DENDA

Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak,
koltxak, edredoak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

**JAUJA
KIROLAK**

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

AZPEITXI
Jatetxea

Aranerreketa 13 behe. Bergara
943 76 55 00

MINGAINARITIRAKA



Igor Larrañaga

HERRIKO GIROA SUSPERTZEKO TALDEKO KIDEA

lazko Pazkoetan herri bazkariak izan zuen arrakasta eskasa ikusita, herriko hainbat koadrila eta kolektibo elkartu eta zerbait egin beharra zegoela ikusi zuten. Horrela, Pazkoetarako ez ezik, urtean zehar ere ekitaldiak antolatzen dituzte.

Saltsa askotako perrexila zaitugu.

Bai, askotan jarri izan didate etiketa hori; futboleko entrenatzailea izan naiz, bandako kidea naiz, GOITBn ere ibili nintzen...

Buru-belarri ibiliko zarete jaiak prestatzen, ezta?

Bai, gehienbat herri bazkaria prestatzen gabiltza; bazkariaren aurretik eta bazkalostean ekitaldi ugari egongo da. Aurten astelehenean izango da koadrilen eguna.

Zelako ekitaldiak antolatu dituzue?

Txaranga egongo da herri bazkarian, mister eta miss jator lehiaketak, jokoak, asto lasterketa... Koadrilen eguna berreskuratzea da gure helburua. Martitzenean, berriz, umeen eguna izango da.

Jaietan zer gustatzen zaizu gehien?

Parranda egitea; gehienbat, egubakoitzean eta astelehenean.

Eta gutxien?

Gertatu izan diren txikizioak; goizean jaikitzea ere kostatzen zait. Aurten, berriz, zezen-plaza kendu izana ez zait batere gustatu.

Bergarako jairik onenak?

San Martzialak eta Pazkoak.

Eta eskasnak?

Jai eskasik badago, ala?

Dantzarako, erromeriak edo tabernetako musika?

Bakoitza bere momentuan; dena dela, erromerietan zaila izaten da dantzarako laguna topatzea.

Eta poteorako, tabernak edo txosnak?

Aukeran tabernak, baina, noizean behin txosnetara joatea ere gustatzen zait.

Koadrilan alkandora berezirik janzten duzue jaietan?

Bai; nik neuk blusa berde bat janzten dut; koadrilen egunean, berriz, koadrilako kamiseta janzten dugu.

Txikitako oroitzapen berezirik badaukazu, jaiekin lotuta?

Hamabi urterekin hasi nintzen musika bandan, eta jaietan eman genuen lehenengo kontzertua, Errotalde jauregiaren ondoan. Ni oso urduri eta lotsatuta nengoen; kontrabaxua ekartzea ahaztu egin zitzaizela eta, Musika Eskolatik Errotalderaino ekarri behar izan genuen kontrabaxua lagun batek eta biok.

AINZANE IRIZAR

KANPOTARRAKBERGARAN

SENIA MORILLO

31 URTE / DOMINIKARRA / ORAIN DELA SEI URTE ETORRI ZEN BERGARARA BIZI IZATERA

“Orain dela sei urte, ez zen erraza etorkinok lana topatzea; nik zorte handia izan nuen”

AINZANE IRIZAR

Seniaren ama orain dela hamabost bat urte etorri zen Bergarara bizi izatera; horrelaxe azaldu digu: “Kate bat izan zen; nire izeba, amaren ahizpa, Arrasaten bizi zen, eta bere bitartez etorri zen nire ama Bergarara; gero, hamar urte beranduago, ni etorri nintzen. Orain dela bi urte, berriz, nire senarra”.

Orain dela pare bat urte Senia ezkondu egin zen Dominikar Errepublikan, hango mutil batekin. Orain dela gutxira arte, senarra ere hemen bizi izan da, baina herrimina zuela eta, hara joan zen; orain, baina, berriro Berga-

“Lehenengo nire izeba etorri zen, gero nire ama; ondoren ni, eta azkenik, nire senarra”

rara itzultzeko irrikan dago.

Hasierak gogorak izan zirela azaldu digu Seniak: “Oso gaizki pasatu nuen lehenabiziko hilabeteetan; egun osoa negarrez pasatzen nuen. Nire amarekin nengoen arren, bakarrik sentitzen nintzen; herri arrotz baten nengoen, ez neukan lagunik, ez neukan lanik...”

Dena dela, zorte handia eduki duela ere onartu digu: “Beste jende batekin alderatuta, zorte handia izan dut nik; izan ere, ez nengoen bakarrik, iritsi nintzenean nire ama neukan hemen, nire zain.



Segituan topatu nuen lana eta lagun onak egin ditut”.

Orain dela sei urte, gainera, ez zegoen orain adina etorkin herrian, eta lana topatzeko arazo handiagoak izaten zituztela azaldu digu Seniak: “Kanpotar bat norbere etxean edo negozioan sartzea gehiago kostatzen zitzaion garai hartan jendeari; hala eta guztiz ere, nik zorte handia izan nuen”.

LAN ETA LAGUN OSO ONAK

Adineko emakume bat zaintzen hasi zen Bergarara iritsi eta bi hilabetez, eta hantxe jarraitzen du: “Oso gustura nago, familiako beste kide bat banintz bezala hartu naute, eta niretako ere amama bezala da zaintzen dudana emakumea”, diosku Seniak.

Lagun oso onak ere egin ditu, eta horrelaxe gogoratzen du lagunok ezagutu zitueneko garaia: “Ni oso goibel nengoen, ez neukan lagunik; bizilagun batzuk deitu eta eurekin irtetera gonbidatu ninduten. Gaur egun euren koadrilako kide naiz eta oso lagun onak ditut”.

Orain dela ia zortzi hilabete, berriz, ama izan da Senia. Ainhoa da alabatxoa. Izen euskalduna jarri dio, hasieratik, herrian integratu nahi duelako: “Hementxe bizi gara, eta oraingoz, behintzat, hementxe bizi izaten jarraitzeko asmoa daukagu; horregatik, hemengo izen bat jartzea erabaki nuen”. Euskaraz ere ikasiko du neska txikiak: “Nire lagun guztiek euskaraz hitz egiten diote; nik neuk ere badaukat ikasketako asmoa”.

Bere bizimodua Bergaran egin du Seniak, eta noizbait beharbada Dominikar Errepublikara itzul litekeen arren, gustura bizi da.

Sei urte hauetan urtero egin du bidai bere herrira; hangoen hutsunea ere nabaritzen du eta: “Nire aita, lagunak, ahizpa... Jende asko daukat nire jaioterrian, eta Euskal Herrian pozik bizi naizen arren, haien hutsunea nabaritzen dut”.

IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak Paper pintatuak
Moketa eta sintasola Harea zorrotada
Iztuku esponjatua Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46 Zubillaga 10
BERGARA OÑATI
943 76 45 53 943 78 24 13

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEBIZAR

Alde zaharreko
ze kaletan
aurkitu
ditzakegu
balkoi hauek?



Super BMk emandako **30 euroko erosketa-txartela** zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

JUANITA MURILLOrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela.
Zorionak, Juanita!
Galderaren erantzun zuzena: **Ibarguren baserria.**



BONOFOTOKO GALDERAREN ERANTZUNA:

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Maria Fontaneda galletak

800 g-ko kaxa + 200 g doan

1,44€

240 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



ERRETRATUZAHARRA

ANTZUOLA

**Koadrila
Trekutzen,
1972an**

Trekutzera egindako irteeran Antzuolako gazte koadrila honek ateratako argazkia da oraingo aste-an dakarkizueguna.

Hona hemen argazkian azal-tzen direnen izenak:

Goian, ezkerretik eskumara: Basili Ormazabal, Iñaki Elortza, Aitor Zubillaga, Iñaki Arregi, Antton Valverde, Jesus Maria Barrena, Agustin Arbulu, Iñaki Agirreurreta, Felix Moto eta Julian Agirreurreta.

Bigarren ilaran, erdi jarrita dagoen hirukotea: Jose Mari Laskurain, Jose Inazio Madariaga eta Jose Francisco Lugarizaristi.

Aurreko ilaran: Peito Manzidor, Mari Nieves Zabalo, Beatriz Lete, Mari Klara Jauregi, Maria Jesus Madariaga, Miren Zubilla-



ga (aurrean), Dina Mujika, Arantxa Lizarralde, Kontxi Laskurain, Iñaki Santa Cruz, Jose Mari Alkorta eta Alex Lakuntza.

Argazkia: Kontxi Laskurain

ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatzoz BERRIGARARA (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

FARMAZIENTXANDA

EGUBAKOITZA, 29

MOZOS. Iparragirre 2 943 76 12 15

ZAPATUA, 30

CAMACHO. Oxirondo 4 943 76 11 74

DOMEKA, 1

CAMACHO. Oxirondo 4 943 76 11 74

ASTELEHENA, 2

ZABALA. Barrenkalea 25 943 76 16 87

MARTITZENA, 3

GUALLAR. San Antonio 5 943 76 11 05

EGUAZTENA, 4

ESTELLA. Matxiategi 5 943 76 19 63

EGUENA, 5

MOZOS. Iparragirre 2 943 76 12 15

TELEFONOAK

OSASUNA / LARRIALDIK

- Anbulatorioa (txanda) 943 03 54 00
- Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46
- Ertzaintza 943 53 47 20
- Osasun etxea 943 76 24 40
- Asepeyo 943 76 16 43
- Pakea 943 76 13 49
- Angiozarko medikua 943 78 90 27
- Antzuolako medikua 943 76 62 23
- Odol emaleak 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

GARRAIOAK

Taxiak 943 76 19 50

UDALA

- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
- Udal Artxiboa 943 77 91 32
- Igerilekuak 943 76 20 51
- Kultura etxea 943 77 91 58
- Liburutegia 943 77 91 62
- Kiroldegia 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

BESTELAKOAK

- Epaitegia 943 76 14 92
- Erregistroa 943 76 13 15
- Jardun 943 76 36 61
- Postetxea 943 76 26 85
- Bedelkar 943 76 04 68
- Akulu AEK 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia 943 76 44 53
- Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

URTE-MEZAK

- Santa Marina**
Hileko bigarren domekan,
10:30ean eta 13:00etan.
- San Pedro**
Hileko hirugarren domekan,
09:30ean eta 12:30ean.

URBANOAK

- San Lorenzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00,
11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00,
16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20
eta 21:00.
- GERALEKUAK:** San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
- Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00,
10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50
(Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Ola-
tik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta
20:40.
- GERALEKUAK:** Labegaraieta, Ozaeta,
Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolola
(Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde),
Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amilla-
ga eta San Juan.

ATREBENTZIAEZPADA/ Aurten ez dute zezen plazarik ipiniko. Falta sumatuko duzu?



VICTORINO FERNANDEZ

Ni ez nintzen zezen plaza-
ra joaten, baina zezenak
kalean ikustea gustuko
nuen. Hala ere, herritarrek
gustuko zuten zezen plaza-
ko ikuskizuna, beraz, uste
dut jendeak sumatuko due-
la aurten falta.



VIRGINIA ORRANTIA

Bai, nik pixka bat bai, bai-
na uste dut amak gehiago.
Ni noizean behin joaten
nintzen zezenketak ikuste-
ra, beraz, ahalegina egingo
nuke datorren urtean zezen
plaza ipintzeko, nik bezala
jende askok nahi du eta.



JOSE AGIRRE

Niri ez zaizkit zezenketak
gustatzen, ganadua sufrit-
zen ikusterik ez dut nahi,
beraz, ez dut faltarik suma-
tuko. Ni konforme jaietan
kalean jai giro ona baldin
badago. Batik bat marti-
tzenean pasatzen dut ongi.




HERMINIA DIAZ

Ez, zezenketak ez zaizkit
gustatzen. beraz, niregatik
ipiniko ez balituzte ere ber-
din-berdin, eta ez ipinita
hobe. Hala ere, ulertzen dut
jende askok gustuko izatea
eta badakit horiek falta
sumatuko dutela.



ISABEL HIDALGO

Jaietan kanpora joaten
naiz, beraz ez zait axola, bai-
na uste dut jendeak pena
duela zezen plazarik ez dela-
ko egongo. Hala ere, ez da
izan ipini nahi ez dutelako,
pentsatzen dut lekua dela
berez arazoa.



IMANOL GARITANO

Bai, gustuko dut joatea eta
falta sumatuko dut. Zezen
plazan gehien gustatzen zai-
dana da jendea erdira irten
eta jausten denean, barre
asko egin izan dut horrela-
koetan. Ea datorren urtean
ipintzen duten.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK AUTOAK ALKABIETAN Alkabetako bizilagun batek esan
digu, autoak ez lagatzeko marra horia egon arren jendeak espalo
gainean aparkatzen duela. "Ondoan dago herriko aparkalekurik han-
dienetakoa, beraz, ezin da onartu. Garajeak dituztenek ere ezin dute
autoa ez atera ez sartu, euren ate parean aparkatzen baitute". //A.

BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Lirain"




—Hiru umen ama izan arren oso liraina dago.

JON IRAEGI

BESTEKEESANA

“ Hamabi kantuk osatu-
ko dute disko berria:
bi gaztelaniaz dira eta
gainerako hamarrak
euskaraz. Kantuen te-
matikari dagokionez, geure bizimodu-
aren gainekoak dira abestien letrak,
inguratzen gaituenaren gainekoak.
Batzuek ukitu politikoa ere badute.
Hitz gehienak Artola abeslariak egin
ditu, baina Captain Nemoko abesla-
riak ere egin du kantuetako bat. Pix-
ka bat nekatura geunden erreper-
torio bera egiten. Izan ere, kontzertu
nahikotxo egin genituen azken bola-
dan. Horregatik erabaki genuen gra-
batu bitartean emanaldirik ez egitea.
Dena den egubakoitzean egin genuen
kontzertu bat Lazkaoko mutil baten
alde, baina ezohiko gauza izan zen”.
AITOR ALDANONDO / Brigada Criminal
taldeko gitarra jotzailea
'Asteleheneko Goienkaria'/05-04-25

BERAIEKDIÑO/ Iñigo Iñurrategi



*Novedade(s)
txarrak*

Maite dut 35 mm-ko pe-
likularen biratzeak
ateratzen duen ho-
tsa. Nirea pixka bat
larria ere izan daiteke, Noveda-
des aretoko butaken estua eta
zenbaitetako giroaren ospela
ere maite bainuen. Baina zori-
txarrez Novedadesek ez digu
nobedade onik eka-
rri eta ostegun ilun-
tzetako zine-
klubetako liturgiak,
astegunetik
astebururako
mugarri, *fumata*
beltza erakutsi
digu. Novedades
aretoa itxita dago,
itxita hiriburuetako
emanaldien
inbidiarik izan ez duten zine-
klub saioak zein asteburuko zine
komertzialaren emanaldiak.

Hamaika arrazoi jar daiteke
mahai gainean erakunde
publikoei era honetako eskain-
tzak babestu eta beharrik balego
bere gain har ditzaten eskatze-
ko. Norbaitek aurpegiratu
diezadake nik interes subjeki-
bo-sentimentalak ditudala
zinearekiko. Eta hala da. Baina
begiratu besterik ez dago
herrian astebururo ematen den

migrazio fenomeno: *spagetti
western*-etako kale hutsak dira
nagusi. Arrazoiak hainbat
izanda, orain bat gehiago
zinea itxi denetik. Adibide gi-
sa domekan Elorrioko zinean
elkartu ginen bergarar
koadrila.

Bada urtebete idatzi nuela

**“Astebururo ema-
ten da migrazio
fenomenoa:
spagetti western-
etako kale hutsak
dira nagusi”**

txoko honetan
premiazkoa zela
herri mailan
kultur ekipamen-
duen plangintza
egitea: Novedade-
sen bizi itxaropena
urria izanik,
lehenik Zabalote-
giko areto berria
eta ondoren

plazako auditorio-
aren proiektuak martxan jarri
eta bitarte horretan hutsune-
rik egon ez zedin Novedades
aretoa mantentzea. Novedades
mantentzearen apustua egin
zen, dirulaguntzen bitartez,
ustez luzaroago iraungo zuelako-
an. Urtebete galdu dugu bidean.
Orain behin-behinean Noveda-
des irekitzeko ahalegina egitea
eskatzen dut, Zabalotegiko areto
berria lehenbailehen egiten den
bitartean. *To be continue*-ak
etenik izan ez dezan.

HAUGIROA!

MINIMOA 3 °C
Martitzena, 26

MAXIMOA 24 °C
Martitzena, 26

ASTEKO EURIA (l/m²) 50,3 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 20	12 °C	8 °C	35,5 l/m²
Eguena, 21	15 °C	9 °C	8,9 l/m²
Egubakoitza, 22	23 °C	12 °C	2,1 l/m²
Zapatua, 23	21 °C	9 °C	2,7 l/m²
Domeka, 24	20 °C	7 °C	13,7 l/m²
Astelehena, 25	20 °C	7 °C	- l/m²
Martitzena, 26	24 °C	3 °C	- l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 13
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil

ERREDAKZIOA
Aintzane Irizar
Iratzi Agirreazaldeg
Oihaná Elortza

MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga

KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkorobereibar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91

ISSN
1130-6599

TIRADA
8.680 ale

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2005eko apirilaren 29a / 231. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Urruti eta Gorriz arteko bidea konponduko dute

AINTZANE IRIZAR

Udaleko Nekazaritza Batzordeak legealdi honetarako plangintza osatu zuen. Aurten, euren asmoa Urruti baserriatik Gorrizera porlana botatzea da. Horretarako, 94.000 euro baino gehiagoko aurrekontua aurreikusi dute aurtengo inbertsioen atalean.

Ohi baino aurrekontu handiagoa dauka aurten Nekazaritza batzordeak. Izan ere, 94.643 euro inbertituko dituzte Urruti eta Gorriz baserrien arteko bidean porlana botatzen. Kilometro eta erdiko distantzia dago bi baserrien artean.

Aurrekontua 94.643 euro baino handiagoa da; gainerakoa Deba Garaiko Mendi Nekazari-tzak jarriko du.

Udaleko arduradunek adierazi digutenez, urria baino lehen lanok amaituta egotea espero dute.

LAU URTERAKO PLANGINTZA

Legealdi hasieran, Nekazaritza batzorde berria osatu zutenean, hurrengo lau urteetarako plangintza egin zuten. Lehendabiziko urtean Basalden egin zituzten



Kilometro eta erdiko bidea dago Urruti baserriatik Gorrizera.

hobekuntza lanak; San Blas ermitaren parean, harri-lubeta berria egin zuten errekan.

Hurrengo urteari begira, inor bizi ez den baserrietarako bide-

ak konpontzeko asmoa dauka Udalak. Laugarren urterako, azkenik, Arrandegi eta Baztarrina baserrietarako bideak konponduko dituzte.

PILOTA

Kadeteak Udaberri Sariko txapelaldun

AINTZANE IRIZAR

Olalde elkarteko kadete mailako pilotariak lan bikaina egin dute Udaberri Sariko Txapelketan. Gipuzkoako elkarte guztietako bikoteek parte hartu dute txapelketa horretan. Kadeteen bigarren mailan jokatu dute eta txapelketa irabazi dute antzuolarrak. Aitor Mendizabalek eta Asier Longaresek osatu dute aurten kadeteen bikotea; aurten ez du parte hartu Aitor Jauregik.

Apirilaren 16an jokatu zuten finaleko partidua Antzuolan. Zegamako bikotearen aurka, 22-9 irabazita, Udaberri Sariko txapelaren eraman zuten antzuolarrak.

MENDIZABAL, ELGETAN

Elgetan jokatzeko diharduten Longares eta Mendizabalak irabazi dute Udaberri Sariko Txapelketan parte hartuko du Aitor Mendizabalek kadeteen mailan. Etzi, domeka, 10:45etik aurrera jokatuko du lehendabiziko partidua, Ariznabarretaren aurka.



Longares eta Mendizabal Udaberri Sariko trofeoarekin.

LABUR

Amagoia Zubillaga arrasatearra izango da kultura teknikaria datozen hilabeteotan

Jone Larrañaga kultura, kirola eta hezkuntza teknikariak amatasun baja hartu du, eta bere ordezkoa hautatu dute dagoeneko; Amagoia Zubillaga arrasatearra da bera. Hiru azterketa izan dituzte eta berak lortu du postua. Martitzenean hasiko da lanean.



Mikel Lizarazuk txistulari txapelketan parte hartuko du, Hernanin, zapatuan

Bihar, zapatua, Txistulari Jaialdia ospatuko dute Hernanin, Euzkal Herriko Txistularien Elkarteak antolatuta. Txistulari lehiaketan parte hartuko dute eta Mikel Lizarazuk gaztetxoaren mailan parte hartuko du. Bergarako Musika Eskolako ikaslea da Mikel.

Ipuin liburua argitaratu dute

Patziko Txerren sariketako ipuinekin osatutako liburua kalean da dagoeneko. Bederatzi ipuin batu dituzte aurtengo liburuan. Lehenengo mailatik seigarrenera bitarteko ikasleak dira ipuinok. Honako hauek dira, hain justu, ipuinen egileak: Helene Baztarrika, June Azkarate-askasua, Endika Cabo, Mikel Jauregi, Ane Martin, Alaitz Urkiola, Josune Cantero, Jone Larrañaga eta Onintza Legorburu. Liburutegian dago liburua, hartu nahi duenarendako./A.I.



ELKARRIZKETA

KRISTINA PAVO/ANTZUOLAKO TOPONIMIA BATU DU

“Pertsona izenak, abizenak eta leku izenak dira euskararen lekukorik zaharrenak”

A.I.

Antzuola Ikerketa Beka jaso zuen Kristinak Antzuolako toponimia jasotzeko. Euskaltzaindiako adituek lagundu diote. Lana bukatu du eta egindakoa berri emango du maiatzaren 5ean, 19:00etan, Olaranen.

Zergatik herriko toponimia batzea, aztertzea eta finkatzea?

Orokorrean da garrantzitsua toponimia batzea, batez ere, Euskal Herrian izenak, abizenak eta toki izenak direlako euskararen lekukorik zaharrenak. Horretaz gain, hainbat faktorek leku izenen aldaketak edota desitxurazteak ekarri ditu. Hortaz, pentsatu dugu, berandu izan baino lehen, Antzuolako toponimia jasotzea. Egia esan, aurretik bazegoen lan handia eginda, baina ez zegoen dena behar bezala batuta. Aurrez geneukan informazioa osatu eta gero, informazio hori guztia era ordenatu baten gorde dugu.

Zein da lanaren helburua?

Antzuolako leku izenak batzea, aztertzea eta arautzea izan dira lanaren helburu nagusiak, baina bestelako helburuak ere beteko dituela uste dugu; hala nola, herritarren ondare historikoa gordetzea eta aberastea; herria hobeto ezagutzeko eta galtzeko arriskuan dauden izenak gordezko aukera ere emango digu.

Ze metodologia erabili duzu?

Lehenengo lana izan da informazioa biltzea. Batetik, idatzizko dokumentuak batu ditugu: iturri bibliografikoak, kartografikoak eta artxibategietakoak erabili ditugu. Azken horrek eman digu lan handiena. Oñati, Bergara eta Antzuolako udal artxibategietan eta erregistroan lan egin dugu. Bestalde, ahozko informazioa batu dugu; herriko auzo guztietako bizilagunei egin dizkiegu elkarrizketak.

Behin informazio hori guztia batuta, toponimo guztiak



A.I.

“Aurrez lan handia zegoen eginda; informazioa osatu eta era ordenatu baten gorde dugu”

aztertu ditugu eta ondoren, arautu egin dugu. Arautzea da izenak zelan idatzi behar diren zehaztea.

“Izenak batzea, aztertzea eta arautzea izan da lan honen helburu nagusia”

Liburu baten batuko duzue egindako lana, ezta?

Liburu baten argitaratuko dugu egindako lanaren zati bat,

baina ez lan guztia. Informazio garrantzitsuena batuko dugu. Dena dela, liburutegian edo udalletean eskuragarri egongo da lan osoa ere. CD formatuan ere jaso dugu egindako lana.

Zenbat izen batu dituzu?

Azkenean, 1.700 lekuren izenak batu ditugu; toponimoak gehiago dira, toki berak izen bat baino gehiago izan dezakeelako. Dena dela, urtebete oso epe laburra da horrelako lan bat egiteko, eta aukeraketa egin behar izan dugu. Oraindik asko geratuko da batzeko.

Zelako tokien izenak batu dituzue?

Baserrienak, txabolenak, ermitenak, lur-sailenak, mendienak, auzoenak, errekenak, iturrienak... Dena dela, esan behar dugu, liburuak mapa bat izango duen arren, izen guztiak ezin izan ditugula mapa horretan kokatu.

Jarriko zenizkiguke adibide batzuk?

Bai; dena dela, lehenik eta behin esan behar da hainbat izen arautzerakoan zalantzak egon direla, esaterako, asko urruntzen direlako ahozko erabileratik. Badaude izen batzuk oso errotuta daudenak eta horiek aldatu behar dira, gaizki idazten direlako. Noski, guk inori ez diogu esango zelan esan behar duen izen bat, gu ez gara ahozkotasunean sartzen; hemen arautzen dena idatzizko formak dira.

Mila adibide jar genitzake; Mañarieta auzo berriaren kasua dugu, adibidez. Zergatik horrela idatzi Mainitta esaten badugu? Bada, izena, berez horrela delako. Aretxabaleta herriaren izena ere Atxabalta esaten dugu, baina, inork ez du horrela idazten.

Beste kasu bitxi bat ere badago, Ondarre auzoarena, hain justu; Ondarra idatzi beharko genuke, hitz egiterakoan Ondarre esan arren. Kontua da, berez, Ondarra izena izan arren, deklinatzerakoan e hori azaltzen zaigunez, azkenean, Ondarre izenarekin eza-gutu dela auzoaren izena.

LABUR

Herriko gimnastak, Gipuzkoako Txapelketara

Aurreko asteko zapatuan Gipuzkoako gimnasia erritmiko Txapelketako kanporaketak jokatu zituzten, Bergarako kiroldegian. Antzuolako alebin mailako neskek sailkatu egin ziren txapelketa horretarako; honakoak, hain justu: Izaskun Fernandez, Alaitz Urkiola, Josune Cantero, Nagore Etxezarreta eta Jenifer Pineda.

Gazte mailakoak, igoera faseko lehenengo postuan

Gazte mailako herriko futbol taldeak 1go postuari eusten dio. Igoera fasea jokatzeko dihardute, eta lehenengo daude, 22 punturekin. Bigarren postuan dagoen Beasain taldeak ere puntu kopuru berbera dauka, baina, antzuolarrak gol gehiago sartu dituzte. Hiru jardunaldi besterik ez da geratzen liga amaitzeko.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA

Apirilak 30

16:30: Antzuola-La Salle (Regionalak)

PILOTA

Apirilak 30 (Deba Arroko Txap.)

17:00: Olalde-Aretxabaleta II (Nagus.)

EMAITZAK

FUTBOLA

Antzuola 3 Zestoa 0 (Erregionalak)

Antzuola 4 Gure Txokoa 1 (Gazteak)

Unbe 1 Antzuola 1 (Kadeteak)

Elgoibar 6 Antzuola 0 (Neskek)

PILOTA


Deba Arroko txapelketa

Eskoriatza-Olalde (Nagusiak) 22-5

Elgoibar-Olalde (Nagusiak) 22-12

Olalde-Bergara (Kadeteak) 22-2

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

MUJIKA HARATEGIA

Berezitasunak: Etxean hazitako zekorrek eta oilaskoak
Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

AITZ-GARBI
taberna jatetxea

Pintxoak eta kazuelatxoak.
Bazkariak eta afariak
Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51
ANTZUOLA

zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. 943 76 60 89
Faxa: 943 76 60 14

ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak
Eta orain....
GREMIOEN
KOORDINAZIOA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2005eko apirilaren 29a / 224. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegia • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@golena.com • Lege gordailua: SS475/95

Jaietan ez da danborradarik izango Udala eta antolatzaileak bat etorri ez direlako

IRATI AGIRREAZALDEGI

Azoka Nagusiko jaiak gertatzen hasi dira dagoeneko eta aurten nobedadeak egongo dira. Danborradako antolatzaileak ez dira ados ipini Udalekoekin, beraz, aurten danborradarik ez egitea erabaki dute. Iaz urtebeterako egindako etena luzatu egingo da.

Danborrada antolatzen duen taldeak lan jarduna bertan behera lagatzea erabaki du aurten. Izan ere, "dagoeneko ez dago denborarik danborrada antolatzeko". Hori jakinarazi digu danborradaren bultzatzaile Josu De Vegak.

Iaz ez zen danborradarik izan jaietan. 2003ko danborradaren ostean, atsedena hartzea erabaki zuten eta ekitaldi berezi hori bi urtean behin egitea. Aurtengo asmoak, ordea, ez du aurrera egin. "Urte hasieran Udaletik galdetu ziguten zenbateko kostua duen danborrada antolatzeak eta guk jakinarazi genuen. Baina orain dela hamar bat egun jakinarazi ziguten ez dagoela dirurik, alkateak partida berezirik eman ezean danborradarako", esan digu De Vegak.



Orain dela bi urteko jaietan egin zuten azken aldiz danborrada.

HASERRE

Danborradaren bultzatzaileak haserre daude. "Urtariletik kulturako arduradunei gaiaren gainean berba egiteko nahia azaldu

diegu eta orain dela gutxira arte ez digute ezer garbi esan. Orain berandu da antolatzen hasteko. Gauza asko koordinatu behar dira: musika, jantziak, jendea..."

Hori ikusita, danborrada antolatzen zuen sei laguneko taldea desegin dute. Hala ere, erabaki hau ez da behin betikoa. "Egunen baten danborrada berriz egitea

Danborradaren antolatzaileak haserre daude eta oraingoz taldea desegin dute

prestatzeko gero laguntzeko prest egongo gara, baina ez dugu ezer ziurtatzen. Aurten gertatu dena berriz ez gertatzea espero dugu, eta ea hurrengoan gauzak bide onetik doazen".

Antolatzaileek barkamena eskatu nahi diete orain arte danborradan parte hartu duten herritarrei, eurak baitira egoera honen ondorioak jasan dituztenak.

De Vegak esan digunez, "antolatzaileok ez ezik herritarrek ere haserre daude. Kontuan hartu behar da horrelako herri txiki batendako sekulako ekitaldia dela danborrada. 300 lagunetik gora izaten dira bertan, eta ezer gabe geratzeak pena eman dio askori". Gaineratu digu hau gertatu ostean, ez dakiela danbor joleak beste urteren baten parte hartzeko prest egongo ote diren.

KULTURA

Arno maisuaren hipnosi saioa eta ipuin kontalariak Espaloian

I.A.

Asteburu honetan hainbat ekitaldi izango da Espaloian. Gaur, barikua, Arno maisuaren hipnosi saioa izango da. Lehenengo aldiz antolatzen du Espaloiak hipnosi saio bat eta espektatiba handiak sortu ditu. Arno maisuak barreak eta negarrak eragingo ditu ikusleek parte hartzeko saioa izango da eta sinesten errazak ez diren hainbat ariketa egingo ditu. Sarrera 10 euro da eta 8 euro bazkideendako.

IPUIN KONTALARIAK

Bestalde, domekan ipuin kontalarien saioa izango da 19:30ean hasita.


Ahokotasunaren Nazioarteko Jaialdiaren baitan antolatutako emanaldia da. Ipuinak kontatzeko ardura izango dute Kamerungo Boni Ofogok eta Mexikoko Martha Escudero.

Boni Ofogok, Kamerungo herrixka baten jaiola izanik, txikitatik jaso du ahoko tradizioa Gerora, 1992an ipuin kontalari moduan hasi zen eta gaur egun

hainbat tokitan jarduten du langintza horretan. Batik bat Afrika beltzeko kondairak kontatzen ditu Bonik.

Mexikarra da Martha Escudero, gaur egun Bartzelonan bizi dena. Hala ere, Mexikoko eta Latinoamerikako ipuinak kontatzen ditu batik bat bere emanaldietan; batzuetan musikaz lagunduta gainera.

Ipuin kontalarien emanaldirako sarrerak sei euro balio du; bazkideek, berriz, lau euro ordainduko dituzte.



Boni Ofogo ipuin kontalari Kamerundarra.

OMENALDIA

'Lepo'-ri omenaldia egin diote hil zuteneko 25. urtemugan

I.A.

Apirilaren 28an bete ziren 25 urte Xabier Arantzeta Lepo hil zutela. Haren heriotzaren 25. urtemuga gogoratzeko omenaldia egin zuten joan zen domekan Asentzión. Lepo-ren gainean bere bizitza bilduko duen liburuxka bat gertatzen ere badihardute.

Joan zen domekan Asentzión elkartu ziren hainbat lagun Jabier Arantzeta Lepo-ri omenaldia egiteko. Izan ere, orain dela 25 urte, apirilaren 28an hil zuten Hernanin.

Omenaldian txalapartariak eta bertsolariak izan ziren lehenengo. Ondoren, testu bat irakurri zuten eta dantzariak agurra dantzatu ostean lore-eskaintza egin zuten oroitarrian.

LIBURUXKA

Lepo hil zutela 25 urte bete diren honetan, bere bizitza bilduko duen liburu bat gertatzen dihardute, baina oraindik zehazteke dago noiz kaleratuko duten.



Jabier Arantzeta-oren omenez Asentzión ipinitako oroitarrian egin zuten omenaldia. MIKEL IRIZABAL

Guardia zibilaren kontrako ekintza batean txofer lana egitea egotzi eta 1976an atxilotu zuten. 80 egun eman zituen Zaragozako espetxean eta fidantzapean aske irten ostean Iparraldera egin zuen ihes. Ondoren, 1980ko apirilaren 28an hil zuten Hernanin. Asteon bete dira, beraz, 25 urte.

1944an jaioa, bederatzi seme-alaben artean bigarrena zen Jabier. Ezagutu zutenen hitzetan umore oneko gizona, broma zalea eta zirikatzailea zen oso. Pilotan jokatzeko zuen eta ehiza ere oso gustuko omen zuen.

Horiek eta beste hainbat kontu jaso nahi ditu liburuxkak.

ESKOLA TXIKIAK

Jaialdia zapatuan Espaloian Eskola Txikien Jaia girotzeko

I.A.

Eskola Txikien Jaia ekainean egingo bada ere, bihar, zapatua, festa izango da jaialdia Espaloian. Bestalde, asteon aurkeztu dituzte Eskola Txikien Jaian izango diren ekitaldiak.

Ekainean egingo da Elgetan Eskola Txikien Jaia. Aurrez, jai girotzeko, festa izango da bihar, zapatua, 19:00etan Espaloian. Sorpresaz betetako jaialdia izango da eta

umeez zein helduek hartu ahal izango dute parte. Besteak beste, Eskola Txikien Jaiko abestia aurkeztuko dute bertan.

Horretarako kantuaren egile Ainhoa Agirreazaldegia, eta abestiari musika ipini dioten Gorka Arizmendiarieta, Izaskun Ojangueren, Josu Azkarate eta Loiola Madera izango dira jaialdian.

EKAINEN JAIA

Bestalde, asteon aurkeztu dituzte Eskola Txikien Jaia-aren nondik norakoak eta egunean bertan egongo diren ekintzak.

Goizean eskola txikietako ikasleek aurkezpen saioak egingo dituzte jolasen bidez.

Ondoren, pilotalekuan bazkaria izango da 350 lagunendako. Hala ere, antolatzaileek herrian beste gune batzuk egokituko dituzte norbere jatekoa ekartzeko duenak eroso bazkaltzeko.

Bazkal ostean, pailazoaren emenaldia egongo da, eta gero dantzaldia Tapia eta Leturiarekin.

Egunean zehar ohe elastikoak eta rokodromoa ere egongo dira; eta herriko trikitilariak girotuko dituzte kaleak.

EUSKARA

Hika ikasteko eskolak maiatza eta ekainean

I.A.

Hikaren gainean ikastaroa antolatu du Udalak. Ikastaroa maiatzaren 17tik ekainaren 16ra bitartean izango da, martitzenetan eta eguenetan, 20:00etatik 22:00etara Kultura etxean.

Ikastaroaren helbura da Elgeta aldeko hiketan ziurtasuna hartzea. Ikastaroko irakasle izango den Juan Martin Elexpururen esanetan, "Hika da trataera nor-

malena eta atsegina konfiantza edo lagunarte giroan. Eten barik erabiltzen du jende askok, baina ez eskolan eta ez beste inon erakusten ez denez, forma okerrak bere bidea egiten ari dira. Bestalde, jende asko dago beti zuka egin duena eta hika ere ikasi nahi duena".

Ikastaroaren parte hartu nahi dutenek izena eman behar dute maiatzaren 11 baino lehen udaletxean 10 euro ordainduta.

LABUR

Elgetako euskararen gaineko hitzaldia Alberto Telleriaren eskutik maiatzaren 6an

Alberto Telleria elgetarrak herriko euskararen egoera izango du hizketarako gai liburutegian emango duen hitzaldian. Hitzaldia maiatzaren 6an izango da 19:30ean, eta edozein herritar joan daiteke bertara.

Maiatzaren 11n eta 25ean bi informatika ikastaro izango dira KZgunean

Apirilean bi ikastaro egin ostean, maiatzerako beste bi antolatu dituzte KZgunean. Lehenengoa maiatzaren 11n izango da 9:00etatik 11:00etara eta Outlook Express programa erabiltzen ikasiko dute bertaratzeko direnek. Bigarrena maiatzaren 25ean egingo da Zure egunkaria irakurri izenburupean 11:00etatik-13:00etara. Izena emateko epea zabalik dago.

KIROLA

ETB KANTXA (PILOTA)

Apirilak 29
21:00: Armendariz-Irureta (23 urtez azpikoak)
Gero: Olazabal-Etxeberria (23 urtez azpikoak)
Gero: Beloso-Tabar (23 urtez azpikoak)
Gero: Bengoetxea-Urrestarazu (23 urtez azp.)

Apirilak 30
16:30: Garraja-Eskudero (Kadeteak)
Gero: Beroiz-Esparza (Kadeteak)
Gero: Tellaetxea-Saez (Kadeteak)
Gero: Iraola-Kortabarria (Kadeteak)

Maiatzak 1
10:45: Grajal-Iturria (Kadeteak)
Gero: Mendizabal-Arznabarreta (Kadeteak)
Gero: Mitxelena-Madariaga (Kadeteak)
Gero: Vicente-Garcia (23 urtez azpikoak)
Gero: Elurbe-Torres (23 urtez azpikoak)

Maiatzak 2

11:00: Landaburu-Bolinaga (Kadeteak)
Gero: Iribar-Lezaun (Kadeteak)
Gero: Aurtenetxe-Ibarguren (Kadeteak)
Gero: Agiriano-Zelaia (Kadeteak)
16:45: Ropon-Alberdi (Kadeteak)
Gero: Elezkano-Rico (Kadeteak)
Gero: Apeztexea-Martinez (23 urtez azp.)
Gero: Renobales-Altzagarrak (23 urtez azp.)
Gero: Urrizelki-Astiz (23 urtez azp.)

ARETO FUTBOL TXAPELKETA

Apirilak 30
15:00: Mekanaki-La Kokotxa . Añiketan
16:00: Viclos-Añiketan Mekanaki
17:00: Isspro-Txapela Fuxion
18:00: Fuxion-Maccabi Isspro

RECYDE, S.A.
Pagatza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel.: zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es

AENOR
ER
Enpresa Erregistratua
ER-0182/2/95

ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949

Aperribay, s.l.

Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21

20690 ELGETA

JAR EZAZU HEMEN ZURE PUBLIZITATEA

TEL.: 943 76 92 71

Goibekokale

Oñati

OÑATI / Egubakoitza / 2005eko apirilaren 29a / 5. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oihana Elortza • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 71 29 77 • Posta elektronikoa: oinati@goiena.com • Lege gordailua: SS482/05

Klaxk, txokolatearen aldeko elkarteak aurkezpena egingo du

OIHANA ELORTZA

Txokolate ontza batek tabletan zatitzerakoan ateratzen duen soinuaren izena jarri diote txokolatearen aldeko elkarteari: Klaxk. Txokolateak Oñatin izan duen garrantzia ez ahaztea du helburu elkarte honek. Maiatzaren 28an egingo dute aurkezpena.


1500-1600 inguruan heldu zen txokolatea Oñatira. Hona ere botika gisa ekarri zuten kakaoa lehenengo, nahasten zituzten osagaien hautsari botatzeko. Geroago hasi ziren txokolatea egiten. Hasieran jauntxoek, mojek eta apaizek hartzen zuten txokolatea baina Compañía Guipuzcoana de Caracas izeneko enpresarekin, laster zabaldu zen txokolategintza herrian. 400 urtetan, 52 tokitan egiten zuten txokolatea Oñatin. 1960an, zazpi txokolate lantegi zeuden: Martin Orbea, Loyola, Garaicoechea, Maiztegui, Guereca, Oñena eta Zahor.

Txokolateak garrantzi handia izan du Oñatin eta hori ez ahazteko jai da Klaxk elkarteak, txokolatearen aldeko elkarteak. Aurkezpenaz gain, ekitaldi ugari antolatuko dituzte dagoeneko.

TXOKOLATEA DIRUA BAINO NAHIAGO

Artxiboan ordu asko egin ditu Anton Azpiazuk, txokolatearen gainekoak bilatzen, eta istorio bitxi asko aurkitu ditu. Ana Austriakoa, esaterako, Madrildik Bordelera zioan ezkontzera eta bidaiaria hartan Oñatin gelditu zen. Hernani etxean hartu zuen ostatu, egun Caixa banketxea dagoen eraikinean, eta txokolatea eskatu zuen afaltzeko eta gosaltzeko.

Baina gozoa izateaz gainera, txokolateak dirua esan nahi zuen garai batean. Horregatik, batek baino gehiagok, nahiago zuen txokolatea hartu dirua kobratu baino. Adibidez, Bidaurretako erretaula diseinatu eta egin zutenak, txokolatea eskatu zuen bere lanagatik, ez dirua. Aita Larreak ere, txokolatea nahiago izan zuen dirua baino Unibertsitatean eman zuen sermoiatatik.



ANTON AZPIAZU

Guereca lantegian ateratako argazkia, 1960ko hamarkadan, lantegia itxi baino urte gutxi batzuk lehenago.

ANTON AZPIAZU/TXOKOLATEROA

“Trailean txokolatearen feria egingo dugu eta txokolatearen 20 artisau etorriko dira Oñatira”

O.E.

Txokolatea egitetik bizi da Anton, baina txokolatearendako ere bizi dela esan daiteke. Urteak daramatza Oñatiko txokolateari buruzko datuak, argazkiak eta istorioak batzen. Txokolatearen aldeko elkarteak sortu du orain, Klaxk.

Elkarteak ala kofradia?

Elkarteak. Kofradia baino askoz apalagoa da gure elkarteak; ez dugu kuotarik ordaintzen, soilik txokolatearen aldeko ekintzak antolatzen ditugu.

Zenbat lagun eta nortzuk zarete Klaxk elkarteak kide?

Hasieran neu nintzen kide bakarra baina orain 80 lagun inguru gaude, denetarikoa.

Oñatiarrak denak?

Gehienak. Talde ezberdinetako kideak gaude. Adibidez: lehenengo txokolate familietako kideak, txokolate lantegietako langilea ohiak, oraingo langileak, herriko beste taldeetakoak eta baita Bartzelona, Valladolid edo Tarragonako lagunak ere. Denak txokolateroak, hori bai. Horixe da elkarteak kide izateko baldintza bakarra, txokolatearen aldekoa izatea.

Unibertsitatean egingo duzue aurkezpena, ezta?

Bai, maiatzaren 28an. Zapiak jarriko ditugu lepoan eta txokolatearen aldeko kide izateko 10 arauak onartuko ditugu.

Beste zein ekitaldi antolatuko duzue?

Miguel De La Cuadra Salcedo uztailen dator eta orduerako presatu dugu zerbait. Bestetik, txo-



kolatearen feria egingo dugu irailaren 17an. Txokolatearen 20 artisau etorriko dira Euskal Herriatik, Kataluniatik, Mexikotik edo Argentinatik, adibidez, eta Eva Argiñanok sukaldea jarriko du plazan postreak egiteko.

LABUR

Telleria zeramika jaialdia aurkeztuko dute iluntzean

Telleria baserriko zeramika jaialdia gaur, egubakoitza, aurkeztuko dute kultura etxean, 19:00etan. Bertan izango dira jaialdi honetako protagonistetako batzuk: Herbeheretako NVK zeramikagile taldekoak, adibidez.

Ceramikarte taldeak antolatuko du, bigarren urtean, munduko zeramikagileen topaketa. Joan den urtean Arrasaten izan ziren bakarrik baina aurtengo Eskoriatzan eta Oñatin ere izango dira. Oñatiko zeramika erakusketa da aurtengo eskaintza indartsuena antolatzaileen esanetan, “munduko zeramikagintzako lehen mailan daudelako”. Aurkezpenaren ondoren, dokumental bat jarriko du Herbeheretako talde horrek. Erakusketa bera, maiatzaren 8ra arte egongo da ikusteko kultura etxeko erakusketa aretoan.

Iparraldea Oñatira dator maiatzaren azkenengo astean

Iparraldea eta Oñati batu egingo dira datorren maiatzaren azken astean. Izan ere, Iparraldea Oñatin astea ari da prestatzen Laixan elkarteak data horietarako eta Iparraldeko eta Oñatiko hainbat kultur taldek bat egingo dute.

Jatekoek eta edatekoek gain, film emanaldia antolatuko dute. Gainera, Asisko Urmeneta eta Marko Arripach komikilariak eta Antton Luku eta Mattin Irigoien antzezleak, Beltzeriak eta ikuskizuna eskainiko dute txikiendako ere izango da ekitaldirik, eta musika zaleek berriz, aukera bikoitza izango dute: batetik, Uztaritzeko Kolpe taldeak eta Oñatiko Melankoniak rock kontzertua emango dute, eta bestetik, Hiru Truku, Etxartarrak eta Maddi Oihenart musikariek ere kontzertua emango dute.

Batutako dirua Iparraldeko Gure Irratiarendako izango da.



PROFESIONAL
liberalen
GIDA

GESTORIAK

EGUREN
Irala 3. 943 76 21 65

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA
Easo 57, 3-esk. (DONOSTIA).
943 45 27 26 / 656 41 55 49

AHOLKULARITZA

AIERDI AHOLKULARITZA
Artekalea 1. 943 76 03 50

TBG AHOLKULARITZA
Matxiategi 36. 943 76 90 83

ABOKATUAK

RAFAEL ARANBURU
Irizar 5. 943 76 10 81

BERNARDINO MAIZTEGI
Irizar 5. 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA
Irizar 2. 943 76 03 35

ARKITEKTU TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ
Zurradero 4. 943 76 53 53



Añai erretegia

- Eskaintza** **Pardeaga 32 / ARAMAIO**
945 44 51 01
- Bataio eta jaunartzeak
 - Kintadak
 - Karta
- Berezitasunak**
- Arraina eta okela parrillan
 - Etxeko postreak

Egubakoitzetan, zapatuetan eta domeketan zabalik



Baster-Alde

- Eskaintza** **Galartza auzoa / ARETXABALETA**
943 79 24 50
- Menua eta karta
 - Ezkontzak
 - Jangela: 160 lagunendako
 - Jaunartze eta bataioak
 - Kintadak
 - Terraza
 - Aparkalekua
- Astelehenetan itxita



Dragon Oriental

- Araba etorbidea 3 (Super BIM ondoan) / ARRASATE**
943 79 85 33
- Txinatar jatetxea**
- Eskaintza**
- 140 lagunendako jangela
 - Aparkaleku ezin hobea
 - Janaria etxera eramaten dizugu
- Eguneko menua eta karta



Eguzkitza erretegia

- Eskaintza** **Arane Erreka 30 / BERGARA**
943 76 97 01
- Eguneko menua
 - Karta
 - Plater konbinatuak
 - Ogitartekoak
- Berezitasunak**
- Behi txuleta
 - Bakailaua
- Martitzenetan itxita



Gure Ametsa jatetxea

- LEINTZ GATZAGA**
943 71 49 52
- Eskaintza**
- Ezkontzak
 - Jaunartzeak eta bataioak
 - Hiru jangela
 - Aparkaleku handia
 - Umeendako jolaslekua
- Astelehenetan itxita



Larrinetxe jatetxea

- Eskaintza** **Udala auzoa / ARRASATE / 943 79 22 15**
www.larrinetxe.com
- Karta
 - Enkarguz menu bereziak
 - Plater konbinatuak eta ogitartekoak.
- Berezitasunak**
- Denboraldiko arraina
 - Bildotsa erreta
 - Etxeko postreak
- Martitzenetan itxita



Unzueta jatetxea

- Eskaintza** **Zabola auzoa / ARAMAIO**
945 44 50 95
- Eguneko menua
 - Karta
 - Bataio eta jaunartzeak
 - Lagun afariak
- Berezitasunak**
- Parrilla: okela eta arraina
 - Etxeko postreak
- Egunero zabalik



Zotz jatetxea

- Zubillaga auzoa 1 / OÑATI**
943 78 35 45
- Eskaintza**
- Eguneko menua
 - Ogitartekoak
 - Hamarretakoak
- Berezitasunak**
- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan
- Igandeetan itxita